

Artzaina errege

Aspaldi aspaldian, errege baten alaba gaixotu egin zen erabat. Alde guztietako medikuak joan omen zitzaizkion eta ez batzuek ez besteek ezin izan zuten sendatu! Erregearen alaba geroago eta okerrago zihoan, eta bazter guztiak nahigabetu baino nahigabetuago zeuden herri guztian neska gaixoaren egoera tristea ikusita.

Zorigaiztoko berria denetan barreiatu zen; mendi, zelai eta xoko-moko guztietan, eta Ellande artzainari ere iritsi zitzaion berri hura, bere mendi gailurrera. Eta hark ere beste guztiak bezala nahigabe handia sentitu zuen bihotzaren erdian. Baina, horratx, deusik ezin egin!...

Egun batez, harat eta honat zebilela mendian, Erregeren alaba beti gogoan, Ellande ohartzen da ardi bat falta dela artaldean. Zer egin? Artalde osoa txabolan sartu eta abiatzen da, gauaren gauerdian, bere ardi bihurri haren bila. Gauerditik ordu bata aldera, mendi-muino bat zeharkatzen ari zela, bat-batean, horratx!! Sekulako burrunba entzuten du... Begira-begira jarri zen; baina oso ilun zegoen, eta ez zuen ezer ikusi. Haruntzago doa, eta burrunba are handiago bilakatu. Izutu da Ellande eta ondoan zuen arbola baten puntara igo zen arrapaladan...

Ellande gaineratu orduko, izugarrizko haize bolada batean, hor heldu ziren sorginak sorginen gainean. Haien erdian Sorgin-Nagusia, liburu bat galtzarbean. Artzaina zegoen arbola azpian gelditu ziren, hain zuzen ere! Haren ikara!

Sorgin guztiak agur egiten diote berehala beren Nagusiari. Jezarleku gorri-gorri bat ekartzen diote, eta jartzen da Nagusia. Denek musu ematen diote liburuari, eta berehala hasi zen akelarrea edota sorginen Sabata.

Bere aginduak ematen hasi da bada Sorgin-Nagusia:

–Zuek, Katero eta Hamala, Sendiari eta Urliari, holako eta halako gaitza!

–Zuek, Niñika eta Kattalin, holako eta halako etxean Urli eta Berendia suntsi!

Eta Katero, Hamala, Niñika eta Kattalin joan ziren berehala, nor bere erratz-kirtenaren gainean, zein bere alderantz.

Eta gero, beste sorginei galdetzen die oihu batean:

–Eta zuek egin dituzue nik esanak?

–Bai, Nagusia, egin ditugu denak.

–Ongi horrela. Zoazte beraz orain, eta atsedean hartu egun batzutan.

Ordu hartan bukatu zen gau hartako Akelarrea. Sorgin guztiak belauniko kopetaz lurra ukiturainoko erreberentzia bat egin zioten Sorgin-Nagusiari eta

liburuari musu eman ondoren: “frun, frun, frun”... hodeien gainera igo zen Sorgin Nagusia, eta hantxe desagertu zen berehala...

Denbora guzti hartan ikara gorrian zegoen Ellande bere arbolaren gainean: “fut, fut, fut” eginez alde guztietara, sorginak uxatu nahian-edo. Sorgin-Nagusia, bere liburu handiaz joaten ikustean, apurtxo bat bizkortu zen, baina gehiegi mugitu gabe, bere gordelekuan geratu zen, adi-adi. Ordurarte sorginak ez ziren artzainaz ohartu; bertan geratzea deliberatu zuen Ellandek, beldurtuta bazegoen ere...

Sorginak bazihoazen, banan-banan, banan-banan, baina bi geratu ziren arbolaren azpian. Eta, biak ere biak, hara non hasten diren berriketan.

–Esan! Badakin, dudarik gabe, Erregeren alaba guztiz gaixorik dagoela.

–Nola ez? Agian, hik emana dion gaitza?

–Nik emana zionat, noski! Ez dun behin-behingoan osatuko, neska! Bien bitartean, etxean bertan sendabidea baldin badu ere... kar-kar-kar!

–Zer egin beharko luke, bada?

–Hara! Etxe aintzinean Erregek badin estolda bat., estola hartan dortoka bat bizi da; bada, harekin eginiko salda hiru egunetan edatea nahikoa luke erabat sendatzeko.

–Horixe baino ez! Horren ezean, hilarterainoko gaitza izango du ordea...! Ez dute amarrua inoiz igarriko!

Argi urratzea hurbilduxea zen ia. Oilar batek, orduantxe, urrunean, “Kukurruku!” egin zuen eta Ellande bat ere ohartu gabe, suntsitu ziren azken bi sorginak.

Ongi argitu ondoren, arbola gainetik jaitsi zen Ellande, eta atzeraka sarritan begiratzen bazuen ere, ttapa-ttapa, ttapa-ttapa, urrundu zen handik, Erregeren etxera.

Joan, joan beti joan, heldu zen azkenean. Kanean sartu orduko, ahots ozenez esaten entzun zuen: “Erregeren alabak azken hatsa oso gertu dauka”... Baina artzaina inori begiratu ere gabe zuzen zuzen badoa Jauregira. Sekulako soldado mordo zegoen han, eta bati esaten dio:

–Errege ikus daiteke?

–Errege ikusi? Bai zera! Goiz honetan badu beste egitekorik! Alaba hiltzen ari zaio eta!

–Horretxegatik ikusi behar dut Errege, bada! Hatsa doi-doia duen alaba, nik sendatuko dut...

–Gizona, burutik egina al zaude? Hiru erresumetako medikuek ere deus ezin dute egin eta!

–Zer inporta du horrek, nik egin badezaket haiek ezin dutena!

–Zatoz orduan, eta berehala; banoa Erregeren bila.

Laster baino lasterrago doa soldadoa, ete berehalakoan dator Errege, negarrez urtua.

–Agur, jaun Errege! Bizi al da oraino zure alaba?

–Bizi da, baina ozta-ozta!

–Ez horrela etsi, jauna! Salbu da zure alaba, nik esanak betetzen badituzu behintzat.

–Eginahalak egin ditut orain arte, eta denak beti alfer-alferrik... Baina, hala ere, zer egingo ez ote nuke, berriro ere? Ea, esan ezazu zer egin behar dudan.

–Jauregi aurreko estolda urratu behar duzu azkar...

–Jauregi aurreko estolda?

Bai, jauna, berehala-berehala, zure alabaren mesederako.

Errege, artzaina eta soldadoak, badoaz arin-arin. Ellandek urratzen du estoldaren gaina, eta, han, atzematen dute dortoka izugarri handi bat...

–Hara, guk behar duguna eta hura bera! Dortoka honen salda hartu behar du zure alabak hiru egunez. Hiru egunen buruan ikusiko nauzue hemen bertan, berriak jakitera etorriko naiz, eta ziur naiz, berri onak emango dizkidazuela.

Huts edo kausi, zer nahi gerta, Ellandek esanak egin zituzten beraz hiru egunez, eta hirugarren eguneko, Erregeren alaba sendatua zen, sendatu osoki!

Hirugarren egunean, heldu zen Ellande, ondo baino hobeto zekizkien berriak jakitera.

Hala izan zen: Erregek egin zion sekulako ongi etorria. Jauregiko atean zegoen bere alaba ondoan zuela, Ellanderi begi onez begiratzen ziolarik. Eskutik harturik, artzaina eraman zuten biek jangela handi batera, eta ikaragarritzko bazkariak omendu zuten hantxe, biharamunera arte iraun baizuen bazkariak...

Begirunea eta adeitasuna erakutsi zioten handik aurrera Ellanderi, haren gizalegea Erregek eta alabak beti goraiatzuten zutelarik, edonon. Handik aurrera bai Errege, bai alaba eta baita Ellande ere, beren bizimoduari aurrez aurre begiratzeko indarrez eta itxaropenez beterik zeuden. Errege lasai geratu zen bere alaba sendatuta, egunen batean emakume sendo eta baliotsua bilakatuko zelako, dudarik gabe; alaba txikitako ahuleziak alde batera, indartu zelako etorkizunean nahi zuena egiteko. Ellandek, iskanbila guzti hari irtenbidea aurkitu zion, zuhurtasunez eta adimenez eta konfiantzaz begiratu zion bizitzak ekarri zion guztiari...

Eta hala izan zen eta horrela esan zidaten Sendiak, Urliak eta Belandiak bertan izan zirelako, eta haien inguruan bizi izan zirelako zorientasun osoan...



Jean Barbier – Itziar Zubizarreta

Sabat: Ostiral gaueko festa

Estolda: alcantarilla

Katero, Hamala, Niñika, Kattalin: ipuinetan sorgin izenak

Sendia, Urlia, Belandia... : ulano, mengano, zutano, perengano...